


# EUSKAL HERRIKO ARTELATZA

JOSE LUIS PEREZ

*Badirudi Euskal Herrian artelatza  
egotea ezinezkoa dela, baina hori ez  
da egia. Oraindik ere kostaldean  
zuhaizti polit batzuk badaude;  
azkeneko arrastoak dudarik gabe.  
Kontserbatu eta hobetu egin  
beharko genituzke.*



**L**ehenago inguruko kostaldeko, mendiko, basaldeko, ibarretan aragieztu zen hauek mikroklima bereziak izaten dituzte. Horregatik olat duteke Mediterraneo inguruko hauek tipikoak zona hauek ageratu ahal izatea.

Euskal Herrian orotatu, zona hauek gaur batzuetan agertzen da hegoaldeko maldetan, jeki xerofiloak kokatuz.

Bastalde Euzerian, Mediterraneo aldeko hasieraz eta Iberian Pirenealako Hego eta Mendebaldera hedatzen da. Iparraldean, tonka dago eta Frantzia Hego-Mendebaldera irailen da (Landatare). Afrikako iparraldean nabarmen hedatzen da, Marokko, Aljeria eta Tunisiara hain zuzen. Artelatik jeltzena Portugalera dago, eta hasierik handiena Marokkon. Iberian Penintsulan Kantauri orizetan oso jeki batzen da eta Euskal Herrian dagoenez, iparraldeko eremu populazioa gaur (Bakarran eta Abarrizan), Euzerian eta Gertara inguruko area eremu bat da bere bizigune garrantzitsua. Gaur egun, Bizkaia aldean zehar, zehar bat eta landaturiko ale bakarren bat besterik ez dago.

Geologia eta lurzoruari begira, artelatza siliziozko materialaren gainean kokatzen da bereziki, zuhaitz honen ezaugarri tipiko izanik.

Zarautz eta Getaria inguruan eozeno–paleozenoko materialak oso ugari dira (harearria bereziki) eta hauen gainean kokatzen da artelatza. Hala ere, nahiz siliziozalea izan zenbait zonatan lurzoru margatsua- ren gainean ere agertzen da.

Artelatza artearen antz handikoa da, baina azalean erraz bereizten dira; artelatza-aren azala harroa eta pitzatua bait da (kortxoa). Hogeit bat metro edo gehiagoko zuhaitza izan daiteke. Bere hostoak berdeak eta distiratsuak ditu; txiki samarrak. Hostoak iraunkor- rakk dira eta zertxobait iletsuak azpikaldean. Arte-hostoen berdint- suak dira. Lore arrak txikiak dira, dilindariak; adaska edo adartxo- en muturretan kokaturikoak. Emeak berriz, kandu edo pedunkulu motzekoak dira eta oso talde txiki- tan bildutakoak.

Artelatza-aren fruitua ezkurra da, kolore marroia du eta arrautz forma- koa (luzeska) da. Azala kortxozkoa du eta kolorez marroi argia da. Zen- bait tokitan asko erabiltzen dute, be- rarekin kortxozko tapoiak egiten direlako. Ez dirudi Euskal Herrian kortxoa lortzeko erabili denik. Egurra berriz, marroi gorriska da; oso gogorra. Egur hau zurgintzan, gurdi- gintzan eta untzigintzan erabiltzen



Artelatza-aren lorea

da. Baita ikatzetarako eta sutarako ere.

### Artelatza-aren eboluzio historikoa

Artelatza-aren eboluzio historikoa aztertzea nahikoa zaila gertatzen da, materialik eza medio. Hala ere in- guruko baserri- tarrek eta Zarauzko in- guruko historiaz dauden liburu- ek zerbait adierazten dute.

Antzinako bidaiari- en hitzetan, Zarauzko ingurua beste inguru asko bezala paradisu botaniko izan da eta aipagarri da artelatza egotea. Badira XVII. men- deko artelatza-ri buruzko aipamen batzuk idatzita:

Zarauzko Santa Barbara inguruan 56 artelatza, Kajuategi baserri on- doan 350 ale, etab. Gainera baso hauek zaindu egiten ziren, nahiz eta zertarako erabiltzen ziren oraindik ere garbi jakin ez.

Zuhaitz honen izenari buruz aipa- mentxo bat egitea ere oso interes- garria gerta daiteke. Zarautz eta Ge- tarian arkamurka edota arkamuka izenez ezagutzen da. Badirudi arka-



Zuhaitzirik onenak kontserbatu behar dira



Adaska eta fruitua

murka hitza gaztelaniazko alcorno- que hitzetik etor daitekeela, “alcor- noque” hitza Zarautzen toponimian erabiltzen dela kontutan hartuz:


Alkornokal, lursail bat zen, Za- rautzen zegoen eta bere erdarazko itzulpena *lugar de alcornoques* izan- go litzateke. Hitz hau jatorriz ara- biarra dela jakin dugu.

Alkornokaldea hitza, otadi baten izena zen. *Alcornoque*-tik dator eta ezarritako atzizkiak ingurua esan nahi du (-alde). Aipamen hau inter- resgarria da. Ez dakigu zein urtetan

## ARTELATZ ARTEKO IBILBIDE EKOLOGIKOA:

Ibilbide honekin, Euskal Herrian agertzen diren artelatzen gehienak ikusteko aukera izango dugu. Paisaia aldetik ezinhobe da eta oraindik ere antzinako zuhaitzi batzuk erlikia modura kontserbatzen dira.

1. Zarauzko Parroki ondotik abiatzen den Meaga-rako bidea hartu eta Zaharren Egoitza pasatu ondoren galtzadan gora igo "Vista Alegre"ko parkeraino. Bertan artelatzen ikusteko aukera izan arren, beste espezie asko ere agertzen da.
2. "Vista Alegre"ko parkea igaro ondoren, Sta. Barbara-ko bidegurutzera iritsiko gara. Baselizara igo. Bertatik artelatzen eta paisaia ikusi.
3. Garro baserritik pasatu. Puntuzko bidea hartzen bada, pinuak itotzen duen artelatza ikus daiteke. Zingira baserritik igaro ondoren, gorantz doan bidea hartu zuzen-zuzen.
4. Bidetik ikusten diren artelatzen osaturiko zuhaitziak ondo ikusi.
5. Kontuz, bidegurutzea. Errepidea pasatu eta Garate gainera igo, berehala bidea eskuinera hartuz.
6. Garate gaineratik bide beretik bueltatu eta Meagatik datorren errepidea hartuz, eskuin aldera jaitsi Meagako baselizaraino. Bitartean artelatzen ederrak ikusi.
7. Kontuz! Meagako bidegurutzea. Zarautzik datorren errepidea zeharkatuz, Elkano aldera doan errepidea hartu.
8. Alkorteaga baserrira iritsi baino lehen, errepidea utzi eta eskuinera jo. Puntuzko bidea hartzen bada, Elkano auzora iritsiko gara.
9. Jaisteko bidetik abiatuz, Balentzi baserrira iritsiko gara. Bertan dagoen artea ikusi eta artelatzarekin konparatu. Bideari jarraituz Zarauzko Zalbide auzora iritsiko gara.





*Artelatzez osaturiko zuhaitzi tipikoa, angio formako paisaia osatuz*

erabiliko zen, baina otadi izan baino lehen alkornokal izango zen. Jakina denez, otea degradatutako basoetan sortzen da.

Alkornokegi hitza, sagasti baten izena da. Dударik gabe teorizatzeo abiapuntu interesgarria. Sagasti baino lehen artelatza-basoa izatea ez dirudi zaila izango zenik.

Bestalde “alkornoke” hitza askotan entzuten da baserritarren artean. Itzulpen hutsa besterik ez da noski. Artelatza izen ofiziala baserritarrek ez dute erabiltzen.

Erabilpenari buruzko informazioz ez dugu aurkitu, baina artelatzez osaturiko basoak zaintzen zirela konprobatuta dago, eta zerbaitearako erabiliko zituzten. Kortxoa ez da landu, baina untxigintza zela eta agian bere zura erabiliko zuten. Sutarako egur-eskaera ere handia zen. Ez dirudi, nahiz fruitu-emale ona izan, abelazkuntzarako erabiltzen zenik.



*Artelatza tipikoa*



*Artelatzaaren ekosistema*

### **Artelatzaaren kontserbazioa**

Artelatza arrisku bizian dago eta gelditzen zaizkigun azkeneko zuhaitzi eta aleak kontserbatzeko, dagokionak neurri konkretu batzuk hartu beharko lituzke.

Neurri horietako batzuk hauek izan litezke:

- Artelatza botatzea debekatzea (zenbait baserritarrek sutarako erabiltzen bait du) eta kortxoa ebakitzea ere bai; gabonetako jaiotzak egiteko askotan erabiltzen bait da.
- Ezkurren ernalketa sendoak diren artean garatzea, zeren ernalketaren posibilitatea oso handia bait da.
- Pinuak botatzerakoan ekintza kaltegarriak galeratzea, zeren pinudi hauetan artelatza-kopuru handia aurkitzen bait da.
- Basotxo eta zuhaitzi onenak ba-

bestea derrigorrezkoa litzateke.

- Eskoletan eta biztanlegoari oro har informazio didaktiko ekologikoaren bidez kontzientzia positiboa sortzea.
- Segimendu zehatza egitea, populazioa ondo mantenduz.



*Artelatzaaren enborra, kortxoa ondo bereizten delarik*